

Afrika Elkarrekin Bai

12 emakume afrikarrek
laguntza eskatzen dute

2018 Uzt 27

12 emakume afrikarrek laguntza
eskatzen dute ostalaritza ikasketak
egiteko Kenyan.

Gipuzkoako 20 sukaldari baino
gehiagok dei honi erantzuten diote
eta laguntzen dute haien ametsa
gauzatu dadin.

Jackline, Samaris, Owino, Stencey...
sukaldari gipuzkoarrei zuzendu
diren emakume afrikar gazteen
izenak dira, Kenyan ostalaritza
ikasketak egiteko haien laguntza
eskatuz.

E-mailez bidalitako gutunen bidez,
haiengana zuzendu dira, beren
egoera pertsonalak deskribatuz,
beren familietako oztopoak, eta lan
bat eduki eta emakume autonomoak
izateko hezi ahal izateko duten
beharra azalduz. Autonomoak izan
nahi dute, ez ordea inguruan
dutenaz ahazteko, baizik eta,
prestakuntza profesionalak ematen
dien autonomiaren bitartez, modu
eraginkorragoz beren familieiei eta
tribuari laguntzeko.

Kenyako bi ostalaritza eskolek
ematen diete beren ametsa lortu ahal
izateko aukera: Kibondenik eta
Tewak. Batzuek ikasketak hasiak
dituzte, baina familiako

oztopoengatik edo diru kontugatik
utzi egin izan behar dituzte aldi
batez, beste batzuek ez dira hasi eta
laguntza bilatzen dute.

Emakume hauen eskaerak
ostalaritzako profesionalen aldetik
erantzuna izan dute; bai baitakite
ongi profesional hauek zer den
hutsetik hastea, negozio bat berriz
asmatzea, eta behin eta berriro
hastea, daukaten onena ematera
daramatzaten bizi proiektu bat
aurrera eramateko.